

Sakanatik Zuberoarako bidaia proposatzen du Jexux Artze eta Kirikoketaren txalapartak

Arruazuko Tomas Ganboa ezkila joleak, Mixel Etxekoparek eta Laboak kolaboratu dute

Jon Eskisabel / Donostia

Jexux Artze txalapartariak (Usurbil, 1945) Kirikoketa taldearekin grabaturiko disko berria aurkeztu zuen atzo, *Sakanatik Arbaila ttipira* (Elkarlanean). Txalaparta gaitzen duen diskoa egin du, «intuizioak jota edo» hainbat osagai lotu baititu «elkarrizketan»: Arruazu herriko ezkilak, Mikel Etxekopareren txirula eta ttun-ttuna, Iñaki Salvadoren pianoa eta Mikel Laboaren ahotsa, besteak beste.

TXALAPARTAREN belaunaldiz belaunaldiko zabaltze katea eten ez zedin berebiziko garrantzia izan dute Artzeta-rrek azken hamarkadetan. 1963an txalapartarekin topo egin zutenetik, etengabe aritu dira JosAnton eta Jexux Artze anaiak antzinako tresnaren bideak ikertzen, eta belaunaldi berriei erakusten.

Horren lekuko da duela hiru urte Usurbilgo hiru gazterekin –Pello de la Cruz, Mikel Artola eta Iker Muguruza– sorturiko Kirikoketa taldea (Baztanen jotzen zen perkusio tresna da kirikoketa, txalapartaren antzekoa). Haiekin aritu da jotzen Mikel Laboaren zuzeneko emanaldietan eta Iñaki Salvadorekin batera, eta haiekin ere grabatu du bere hirugarren disko luzea. Aurretik, 70eko hamarkadan Ez Dok Hamairu kultur mugimenduko partaide izan zen Jexux Artze, eta *Ikimilikiliklik* ikuskizunetan parte hartu zuen.

Sakanatik Arbaila ttipira diskoa «intuizioak sortutako lana» izan dela azaldu zuen Artzek. Bertan bildutako osa-



Iñaki Salvador, Jexux Artze eta Kirikoketa taldeko Mikel Artola atzo Donostian.

gai guztiak «ia kasualitatez topatu ditut bidean, diskoak horretara eraman banindu bezala», esan zuen. Dena den, kolaborazio guztiek Artzeren beraren bizipen pertsonalekin dute lotura. Esaterako, Sakanako Arruazu herriko ezkila doinuek irekitzen eta ixten dute diskoa. Artzek bailara horretako maisu Pedro Arratibelekin ikasi zuen ezkilak jotzen, eta diskorako bi piezak Arruazuko elizan bertan grabatu zituzten, Tomas Ganboarekin.

Mixel Etxekopar zuberotarrak txirula, ttun-ttuna, flauta eta aho-txistua jo ditu *Txo-*

ri-Erresiñula-abiatze piezan. «Duela hiru urte Gotañen ikusi genuen *Txori-erresiñula* jotzen txistuarekin, eta familia eta denok harrituta geratu ginen, txistu batekin bakarrik zer gauzak egin zituen ikusita», azaldu zuen usurbildarrak.

Mikel Laboarekin zerbait egiteko gogo aspalditik zuen Artzek, «baina ez nintzen auzartzen esatera».

Kantari donostiarrak bere ahotsa jarri du *Loha-loa* piezan. Azkenik, Usurbilgo Zumarte haur abesbatzak *Eperra* kantu ezaguna abestu du.

Bixente Ameztoik eta Joxe Mari Zabalak egin dute disei-

nua eta Josemari Satrustegi euskaltzainak eta JosAnton Artzek bi testu idatzi dituzte liburuxkan. Osagai guztiak «elkarrizketa gisako modu batean» lotu ditu Artzek, txalaparta saioak prestatzerakoan egiten duen moduan. «Dena den, buruari bueltak eman baino gehiago, diskoak berak erakutsi digu nondik jo», azaldu zuen.

Anjel Valdes Elkarlaneaneko arduradunak diskoaren «fintasuna» nabarmendu zuen, «bai diseinuan bai kontzeptu orokorrean». Valdesen arabera, «Artzeren ibilbidearen eta sentimenduaren isla da diskoa. Bidaia bat proposatzen du basoan zehar; enborrak, txoriak eta harriak daude. Entzuleak begiak itxi, eta basoan dagoela ohartuko da».

Fermin Muguruza
Dub Manifest
taldeak Lisboan
hasiko du bira gaur

■ *Bilboko Rockazoka*
jaialdian joko du
larunbatean

J. E. / Donostia

FERMIN MUGURUZAK gaur ekingo dio *Brigadistak Sound System* diskoa zuzenean aurkezteko birari. Lisboan eskainiko du irundarraren talde berriak, Fermin Muguruza Dub Manifest izenekoak, lehen emanaldia, Krabelin Gorrien 25. urtemuga ospatzeko antolaturiko Rock e Revolução jaialdian. Billy Bragg kantari britainiar bikainak eta Aztlan Underground Los Angelesko taldeak ere joko dute jaialdian.

Muguruzaz gain, zazpi lagunek osatzen dute Fermin Muguruza Dub Manifest: Mikel Abrego (bateria), Oskar Benas (gitarra), Sorkun *Kashbad* (ahotsa), Hughes Schecroun paristarra (teklatuak), Brice Toutoukpo bolikostarra (baxua), Stefano Cecchi (tronpeta) eta Francesco Sandokan Antonozzi (tronoia), azken bi horiek italiarrak.

Lisboakoaren ondoren hurrengo kontzertua, Euskal Herrian lehenengo –Erreterian eta Hernanin duela bi aste uste-kabea eskainitakoak kontuan hartu gabe– Bilboko Rockazoka jaialdian emango du taldeak. Ondoren, uztailaren 2an, Bartzelonan joko du, eta uztailaren 3an Arrosako Euskal Herria Zuzenean jaialdian.

Kontzertuotan, *Brigadistak Sound System* diskoaz gain, Kortatu, Negu Gorriak eta Dutekin grabaturiko diskoetako zenbait kantu berreskuratu-ko ditu Muguruzak.